

SARRERA: JOLAS BILDUMA

Gure proiektuak Jolas Bilduma izena du eta gaur egun Euskal Herrian jolas tradizionalak galtzen ari direlako eta horiek berreskuratzeko eta familiei eskaintzeko asmotan sortu dugu. Gaur egungo teknologiaren erabilerak eragin handia izan du haurtzaroan, eta batez ere bertako jolasetan, jostailuak geroz eta komertzialagoak eta artifizialagoak izanez.

Guk sortutako web gunean jolas tradizionalak bildu ditugu, guraso izan berri diren edo guraso zein familia atzerritarrei, bertakoak diren jolas hauek beraien haurrei irakatsi ahal izateko. Horretaz gain, hitzaldi ezberdinak ematen ditugu, eskoletan zein gure lokalean; harpidetutako gure bezeroei, bertan material ezberdinak eskaintzen ditugu jolas zehatz batzuk praktikan jarri ahal izateko. Bestealde, behar bereziak dituzten haurrentzat ere egokitutako jolasak sortzen ditugu, hala nola TEA duten haurrei zuzendutakoak. Gure informazio guztia eskuragarri eduki ahal izateko gure liburu propioa ere sortu dugu, bertan jolas guztiak atxikiturik eta banan banan azalduz daude.